

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Endogamia egiaztatua

MADRIL, 1700EKO AZAROAREN 1A. Karlos II.a Espainiako azken errege habsburgotarra hil zen, 38 urte zituela. Erregearen gorpua aztertu zuen medikuaren hitzetan, “ez zuen odol tantarik, haren bihotzak piper beltz ale baten tamaina zeukan, birrikak janda zeuzkan, hesteak ustelak eta gangrenatuak, barrabil bakarra zeukan, ikatza bezain beltza, eta burua, aldiz, urez betea”. Bizirik zela, Karlosen egoera ez zen askoz hobea: adimen urrikoa, antzua, errakitikoa... Garaikideek sorginduta zegoela argudiatu zuten, baina egun erabat onartuta dago haren arazoak endogamiaren ondorio zirela, habsburgotar senideen arteko ezkontzen ondorio, alegia. Onartua bai; frogatua ez.

Santiagoko Unibertsitateko Gonzalo Alvarez eta Francisco C. Ceballosek eta Galiziako hiri bereko Genoma

Medikuntzaren Fundazio Publikoko Celsa Quinteirok gaiari buruzko ikerketa egin eta emaitza *The Role of Inbreeding in the Extinction of a European Royal Dynasty* lanean jakinarazi dute (Interneten, ttiki.com/4371 helbidean dago irakurgai).

Ikerlariak hiru elementutan oinarritu zuten beren tesia. Batetik, odolki-deen arteko bikoteak nagusi ziren habsburgotarren Espainiako adarreko kideen artean; hamaika errege ezkontzetatik bederatzi (%82) hirugarren mailako lehengusuen edo senide hurbilagoen artean izan ziren. Bestetik, Karlos II.aren gaitz fisiologiko eta psikikoak bat datoz endogamiari egotzi ohi zaizkion arazoekin. Eta, azkenik, errege familiako haurren heriotza tasa %29,4koa zen, garai hartako batez bestekoa %20koa izanda; datu hori deigarria da, errege familiako haurrak gainerakoak baino askoz hobeto zaintzen zituztelako.

Ikerketaren ondorioak biribiltzeko datu base batean errege familiari lotutako hamasei belaunalditako 3.000 pertsonen buruzko informazioa sartu zuten, banako bakoitzaren endogamia koefizientea lortzeko. Koefizienterik altuena Karlos II.arena zen (%25,4) eta berak izan zuen osasun arazo gehien.

Horrenbestez, endogamiaren eta arazo biologikoen arteko lotura egiaztatu dute. Horretarako, Karlos II.aren adibide garbia baliatu dute.

Baina ez dago 300 urte atzera egin beharrik endogamiaren ondorioen beste hainbat adibide antzemateko.

Karlos II.a makurraren gaztetako erretratua. Berriki, galiziar ikerlari talde batek Espainiako erregearen arazo psikiko eta fisikoak endogamiaren ondorio izan zirela egiaztatu du.

Arrastoak

Artaxoako harresiak 900 urte



BEDERATZI MENDE pasa dira Artaxoako harresi eremu ikusgarria eraikitze-ko lanak amaitu zituztene-tik (1109). Lanak 1085ean hasi ziren, Tolosako (Frantzia) Saint Sernin-eko kalonjeen enkarguz.

Jatorrizko hamalau dorreetatik bederatzi daude zutik gaur egun. Gatazka ugari izan ziren Nafarroako gune estratergi-ko horretan eta, ondorioz, hainbatetan berregin behar izan zituzten harresiak. Gerora egindako berrikuntzen artean, XIII. mendeko San Saturnino eliza eta XIV. mendeko dorre prismatikoa nabarmendu behar dira. Azken aldian berrikuntza lanengatik itxita egon arren, dorre horri bisita egitea merezi du, portada gotiko ederra baitauka kanpoko aldean.

Horrenbestez, mendeurrena aitzakia polita da Erdi Arora txangoa egiteko.

